

 <p>Barakaldo CIUDAD-HIRIA Gazteria Arloa</p>	<h2>KALITATE POLITIKA</h2>	<p>Data: 2022ko urriaren 6a. R: 1</p>
---	----------------------------	---

Barakaldoko Udaleko Gazteria Saileko Zerbitzuek, nerabeentzako aisia hezitzaile eta partaidetzarako zerbitzuek eta gazteei informazioa eta laguntza emateko zerbitzuek ondoko helburu nagusiak dituzte: Barakaldoko gazteen bizi-kalitatea hobetzea, gazteei hazkuntzako eta emantzipatzeko prozesuan laguntzea, eta gazteek udalerrian herritar aktibo gisa parte har dezatela erraztea.

Helburu horiek garatzeko, kalitatea kudeatzeko sistema zabaldu dugu. Horri esker, etengabe eskainitako zerbitzuak hobetzeko konpromisoa mantenduko dugu, bezeroen, erabiltzaileen, komunitatearen eta zerbitzu horiei aplikatu dakiekeen arauen eta legeriaren baldintzak beteko ditugu, eta etengabe zerbitzuen hartzaileei entzungo diegu eta haiekin harremanetan egongo gara.

Kalitate sistema hori mantentzeak erakusten du Barakaldoko Udalak kudeaketan kalitatearen aldeko apustua egiten duela, sistemaren zuzendaritza estrategikoa bultzatzen duela eta etengabe inguruko testuingurura egokitzen ari dela.

Barakaldoko Udaleko Gazteria Saileko zerbitzuetako Kalitate Politika ondoko printzipioetan oinarritzen da:

- Bezeroak dira gure izatearen arrazoia: Zerbitzuetako erabiltzaileak, haien eskaerak eta iritziak entzutea eta egiturak sortzea zerbitzuak eta jarduerak definitzean zuzenean parte har dezaten.
- Eraginkortasuna eta efikazia ematen diren programa eta zerbitzu bakoitzean.
- Emandako zerbitzuetan profesionaltasuna egotea. Zerbitzuetako langileak dira bere baliabiderik baliotsuena. Beraz, langileak prestatu eta birziklatu ez ezik, zerbitzu eta proiektuak etengabe hobetzearekiko konpromisoa izatea ere funtsezkoa da.

Gazteria eta Droga-menpekotasunen Azpiarloko
Zinegotzi Ordezkarria
Jonathan Martín Hurtado

<p>Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente. Dokumentuak egiaztatze URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do</p>			
Sinatzailea / Firmado por	JONATHAN MARTIN HURTADO (Gazteria eta Droga-menpekotasunen Prebentzio Azpiarloko Zinegotzi Ordezkarria / Concejal Delegado De La Subárea De Juventud y Prevención De Drogodepend)		
EKS(Egiaztatze Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación)	8eb692ea-5213-4245-9fb9-971894dec8a2	Eguna eta ordua Fecha y Hora	05/10/2022 13:32:48
Erakundea/Organismo	psf.izenpe.com	Orrialdea/Página	1/1
 <p>8eb692ea-5213-4245-9fb9-971894dec8a2</p>			